EBAZPENA, 2021eko apirilaren 20koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendariarena; horren bidez, Durango (Bizkaia) udal-mugartean, Sasikoa kalean z/g, garai batean Euskotreneko Kotxerak kokatzen ziren lurzatiari dagozkion lurzoruaren kalitatea ikertzeko azterlanak eta berreskuratze-plana jendaurrean jartzea erabakitzen da.

RESOLUCIÓN de 20 de abril de 2021, del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular, por la que se acuerda someter a información pública los estudios de investigación de la calidad del suelo y el proyecto de recuperación correspondiente al emplazamiento anteriormente ocupado por las Cocheras de Euskotren, ubicadas en c/Sasikoa s/n del término municipal de Durango (Bizkaia).

Euskal Trenbide Sareak (ETS) hasiera eman dio, Durango (Bizkaia) udal-mugartean, Sasikoa kalean z/g, garai batean Euskotreneko Kotxerak kokatzen ziren lurzatiari dagokion lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen-espedienteari, honako xedapen hauen arabera: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea; eta, lurzorua kutsatu dezaketen jardueren zerrenda ezarri eta lurzoru kutsatuen adierazpena egiteko irizpideak eta estandarrak finkatzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua.

Resultando que Euskal Trenbide Sarea (ETS) ha dado inicio al expediente para la declaración de calidad del suelo correspondiente al emplazamiento anteriormente ocupado por las Cocheras de Euskotren, ubicadas en c/Sasikoa s/n del término municipal de Durango (Bizkaia), de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, y en el Real Decreto 9/2005, de 14 de enero, por el que se establece la relación de actividades potencialmente contaminantes del suelo y los criterios y estándares para la declaración de suelos contaminados.

Espediente horretan jasota daude egiaztatutako erakunde batek ekainaren 25eko 4/2015 Legearen II. kapituluaren arabera lurzoruaren kalitatea ikertzeko egindako azterlanak, aukeren azterketa eta berreskuratze-proiektua.

Resultando que en dicho expediente constan los estudios de investigación de la calidad del suelo, el estudio de alternativas y proyecto de recuperación elaborados por entidad acreditada, de conformidad con lo



Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T2QC6-V62A
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** JAVIER AGUIRRE ORCAJO | 2021/04/20 12:43:26

que se establece en el Capítulo II de la Ley 4/2015, de 25 de junio.

Egindako ikerketan egiaztatu denez, eremu batzuetan arriskuen analisian arriskua onartezina dela ondorioztatu da. Horren ondorioz, aipatutako 25eko 4/2015 Legearen 33. artikuluak xedatutakoa bete behar da. Artikulu horrek honako hau adierazten du: ingurumen-organoak jendaurreko informazioaren izapidea abiaraziko du baldin eta arriskuen analisian etorkizunean eramango den erabilerarako arriskua onartezina dela ondorioztatzen bada.

Considerando que de la investigación realizada se deriva que en determinadas zonas el análisis de riesgos concluye que el riesgo es inadmisible para el uso previsto, y que, por tanto, para las mismas sería de aplicación el artículo 33 de la mencionada Ley 4/2015, de 25 de junio, que establece que el órgano ambiental procederá a someter los estudios de investigación de la calidad del suelo a un trámite de información pública cuando, entre otros supuestos, el análisis de riesgos concluya que el riesgo es inadmisible.

Organo honi dagokio ebazpen hau emateko eskumena, honako hauek ezarritakoarekin bat: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak; lege hori garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuak; 68/2021 Dekretuak, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Considerando que, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, en el Decreto 209/2019, de 26 de diciembre, por el que se desarrolla dicha Ley, y en el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, corresponde a este órgano la competencia para la emisión de la presente Resolución.

Honako hauek ikusi dira: Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko den otsailaren 27ko 3/1998 Legea; lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea; lege hori garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua; lurzorua kutsatu dezaketen jardueren zerrenda ezarri

Vistos la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, el Decreto 209/ 2019, de 26 de diciembre, por el que se desarrolla dicha Ley, el Real Decreto 9/2005, de 14 de enero, por

eta lurzoru kutsatuen adierazpena egiteko irizpideak eta estandarrak finkatzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua; Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea; eta, oro har aplikagarri den araudia. Eta honako hau

el que se establece la relación de actividades potencialmente contaminantes del suelo y los criterios y estándares para la declaración de suelos contaminados y la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y demás normativa de general y especial aplicación

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Jendaurrean jartzea, ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 20 egun balioduneko epean, Durango (Bizkaia) udal-mugartean, Sasikoa kalean z/g, garai batean Euskotreneko Kotxerak kokatzen ziren lurzatiari dagokion lurzoruaren kalitatea ikertzeko azterlanak, aukeren azterketa eta saneamendu-proiektua. Epe horretan, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Bigarrena.- Aurreko artikuluan ezarritakoa betetzeko, dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (Donostia kalea 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz).

RESUELVO:

Primero.– Someter, en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimen oportunas, al trámite de información pública por un periodo de 20 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la fecha de inserción del correspondiente anuncio en la sede electrónica del Gobierno Vasco, los estudios de investigación de la calidad del suelo y el proyecto de recuperación correspondiente al emplazamiento anteriormente ocupado por las Cocheras de Euskotren, ubicadas en c/Sasikoa s/n del término municipal de Durango (Bizkaia).

Segundo.– A efectos de cumplimentar lo previsto en el artículo anterior la documentación se encontrará disponible en la sede de la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, calle Donostia-San Sebastián, 1 - 2.ª planta, en Vitoria-Gasteiz.

Halaber, dokumentazioa herritarrek errazago eskura dezaten, espedientea Durangoko udalari bidaliko zaio, jendaurreko informazio aldian espedientea erakutsi dezan.

Asimismo, en orden a facilitar el acceso de los ciudadanos y ciudadanas a la documentación, el expediente se remitirá al Ayuntamiento de Durango para su exposición durante el período de información pública.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 20an

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2021

DIRECTOR DE CALIDAD AMBIENTAL Y ECONOMIA CIRCULAR

INGURUMEN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIA

Izpta./Fdo.: Javier Agirre Orcajo

(Elektronikoki sinatua / Firmado electrónicamente)